



BIZI KALITATEA HERRI ETA HIRIETAN (2017ko martxo) Prensa oharra

SARRERA

Ikerketa honen gai nagusia EAEko herritarrak, bizi diren herri eta hiriekin zenbateraino dauden pozik neurtzea izan da.

Landa lana 2017ko otsailaren 21a eta 24a bitartean egin zen.

POZTASUN MAILA ALTUA

Biztanleak pozik daude daramaten bizitzarekin, batez ere, familiarekin eta harreman afektiboekin. Ez daude hain pozik errentarekin eta euren lan egoerarekin

Gehienak pozik daude daramaten bizitzarekin: %27 oso pozik eta %59 nahikoa pozik. Poztasuna handiagoa da familiarekin (8,9, Otik 10erako eskalan) eta harreman afektiboekin (8,5). Aldiz, txikiagoa da etxeko diru-sarrerekin (6,7) eta okupazio egoerarekin (6,8). Poztasunaren bilakaera positiboa izan da bizitzako ia esparru guztietan; salbuespena, egungo okupazioarekiko poztasuna, 2003koa baino apur bat txikiagoa dena.

Jendearekiko konfiantza handiagoa da Euskadin Europako Batasunean baino

Jendearekiko konfiantza 6,1ekoa da, Otik 10erako eskalan. Auzoko bizilagunenganako konfiantza apur bat handiagoa den artean (6,9). Jendearenganako konfiantza handiagoa da Euskadin (%48arentzat jendea fidatzekoa izan ohi da) Europar Batasunean (%32) eta Espainian (%31) baino.

%62k nolabaiteko adiskidetasun edo harreman berezia du ohiko etxebizitzako bizilagunen batekin, batez ere, helduenen artean. 2003ko datuei dagokionez, bizilagunekin harremana zertxobait gutxitu da: urte hartan %69k zuen nolabaiteko adiskidetasun edo harreman berezia bere bizilagunen batekin.

HERRI EDO HIRIAREKIKO POZTASUNA

Poztasun handia herri eta auzoetako ekipamenduekin, zein ingurumenarekin eta bizilagunen arteko bizikidetzarekin

Udalerriarekin gehienak pozik agertu dira (7,6ko puntuazioa); puntuazio bera eman diote euren auzo edo bizileku hurbilari.

Herri txiki eta auzoetako ekipamenduei dagokionez, hamarretik zortzi baino gehiagok uste dute euren auzo edo zonaldea ongi ekipatuta dagoela, zaborra birziklatzeko edukiontziez (%90), osasun zentroez (%84), berdegunez (%83), eskola eta haurtzaindegiez (%82) eta garraio kolektiboaz (%82). Apur bat gutxiago dira uste dutenak euren auzoa edo bizileku hurbila ondo ekipatuta dagoela merkatal gunez (%71), eta gutxiago ekipamendu kulturalaz (%61). Udalerrri txikietan gutxiago dira ondo hornituta daudela uste dutenak garraio kolektiboaz (%71), merkatal gunez (%64) eta osasun zentroez (%78).

2003 urtearekin alderatuta, gehiago dira euren auzoa edo bizileku hurbila ondo ekipatuta dagoela uste dutenak, batez ere, berdegune, parke eta lorategiez. Soilik denda eta merkatal gunez ondo ekipatuta daudela uste dutenen portzentajea txikitu da.

Aparkatzeko arazoak dira herritarrei kexatzeko arrazoi gehiena ematen dietenak (%54k uste dute arrazoi asko edo dezente dituztela horietaz kexatzeko). Herritarrek kexatzeko arrazoi gutxiago dituzte zarata mailagatik (%27), ingurugiroaren kutsaduragatik (%28) eta trafiko arazoengatik (%36).

Ez dira asko ere euren auzoan hauek sufritzen dituztela diotenak: zikinkeria edo garbitasun publikoaren falta (%86k gutxitan edo inoiz ez), tabernek eta dantzalekuek sortutako zaratak (%89), jendearen arteko elkarbizitza arazoak (%91), segurtasun arazoak (%92) edo kaleetan iskanbila eta liskarrak (%93). Gainera arazook gutxitu egin dira 2003ko datuekiko.



Herri txikiak eta auzoak seguruak dira bizitzeko herritarren iritziz

%89k uste dute euren herria edo auzoa bizitzeko leku oso edo nahikoa seguruak direla, soilik %9ak uste dute ez direla oso seguruak edo batere seguruak ez direla. Segurtasun eza apur bat gehiago nabaritzen da hiriburuetan (%12) eta udalerrri ertainetan (%10), aldiz udalerrri txikietan soilik %5ek uste dute euren udalerrria bizitzeko leku ez oso seguru edo batere seguru ez dela.

Zentzu berean, gehienak seguru sentitzen dira bizi diren zonaldean gaez bakarrik ibiltzen direnean (%77), eta %19 ez dira oso seguru edo batere seguru sentitzen. Gaez segurtasun ezaren sententzia handiagoa da hiriburuetan (%25 ez oso seguru edo batere seguru ez) eta udalerrri ertainetan (%21), herri txikietan baino (%10).

Azpiraratzekoak, elkarrizketatutako pertsonaren sexuaren arabera atzemandako aldeak. Hots, gaez kalean bakarrik ibiltzen oso edo nahikoa seguru sentitzen diren emakumezkoen portzentajea %67ra jaisten da, gizonezkoena %87koa den bitartean. Gainera, bilakaerari erreparatuta, seguru sentitzen ez diren emakumezkoen portzentajea serie osoan apur bat handiagoa izan bada ere, sexuen arteko aldea handitu egin da azken urteetan.

Herri eta auzoetan bizimodua hobetu egin da azken bost urteetan

Gehienek herri edo auzoko bizitza azken bost urteetan hobetu egin dela uste dute (%45), %40k uste dute ez dela ez hobetu ez okertu, eta okertu egin dela uste dutenak %11 dira.

Hobetu dela esateko arrazoen artean daude: hirigintzarekin zerikusia duten esparruak (%31), parkeak eta berdeguneak (%19), garraiobide publikoen eskaintza (%17) eta zaborren bilketa (%13).

EUSKADIREKIKO POZTASUNA

Hamarretik bederatzik uste dute Euskadiko bizi kalitatea oso edo nahiko ona dela

Biztanleen %89k, hamarretik ia bederatzik, uste dute Euskadiko bizi kalitatea oso edo nahikoa ona dela, eta gehienek uste dute datozen hamabi hilabeteetan dagoenean mantenduko dela (%69).

Hamarretik ia zortzik uste dute Euskadin Espainiako Estatuko gainerako lurraldeetan baino hobeto bizi garela (%76).

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion lagin errorearen estimazioa $\pm 3,16$ koa da EAE osorako, %95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2017ko otsailaren 21a eta 24a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_sociologikoak

Vitoria-Gasteizen, 2017ko martxoaren 17an